



300 HAUR ETA GAZTE ELKARTUKO DIRA AURTEN BERTSO UDALEKUETAN

Uztailean hasi eta abuztura bitarte, 8 txandatan elkartuko dira bertsolaritzaz gozatu eta elkar ezagutzeko. 52 begirale eta sukaldari arduratuko dira beraien egonaldia ahaztezina izateaz. Aurten, gainera, Bertso-udaleku irekia antolatu dugu Bilbon Zenbat Gara Elkartearekin batera.

16. edizioa beteko dute aurten Bertso-udalekuek. 8 txandatan banatutako 300 haur eta gaztek hartuko dute parte, 52 begirale, sukaldari eta zuzendariren laguntzarekin. Uztailean hasi eta abuztura bitarte, Zuhatzan, Arrazolan, Irañetan, Orion, Bidarrain, Barrian (Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean), Lekeition (Aiarako Etxahurren ikastolako Guraso Elkartearekin batera) eta Orion (Nafarroako Udaletako Euskara Teknikariaren sarearekin) egingo dira txandak. Bertsozaleak diren Euskal Herri osoko haurrak elkartuko dira txandetan, eta elkar ezagutzeko aukera izango dute. Horrela, errealitate soziolinguistiko eta kultural ezberdinen berri izango dute eta baita sormena lantzeko parada ere, izan bertsolaritzaren bidez eta baita bestelako adierazpideekin ere.

Bertsolarien bisitak, bertso-afariak, kantagintza...

Bertso-udalekuetan izena ematen duten haurrek jarduera ugari egiteko aukera izaten dute. Tartean, txanda bakoitzera bertsolariak joaten dira bisitan eta elkar ezagutzeaz gain saio bat bertatik bertara gozatu ahal izaten dute haur eta gazteek. Azken urteotan beste osagai bat erantsi zaie Udalekuei: kantagintza eguna. Oskar Estanga bertsolari eta musikariak gidatuta, Udalekuko Kanta osatzen dute haurrek eta begiraleek, eta musikaz grabatu ondoren udalekuetako argazkiekin jantzitako muntaia osatzen dute.

Bertso-Udaleku irekia Bilbon, Zenbat Gara Elkartearekin elkarlanean

Aurten berrikuntza bat izango dute Bertso-udalekuek: Bertsozale Elkarteak eta Bilboko Zenbat Gara kultura elkarteak Bertso-udaleku irekia antolatuko dugu elkarlanean, Bilboko haurrentzat. Udaleku berezi honen helburuak dira Bilboko haurrengan bertsozaletasuna sustatzea, eta euskal



Bertso-udalekuak.//XDZ

kulturaz eta euskaraz gozatzea. Ekainaren 24tik 28ra bitartean 12 eta 14 urte arteko 30 haur elkartuko dira bertan. Begirale taldea Bizkaiko bertso-eskoletako kide diren 4 gaztek osatuko dute.

Hainbat ekintza berezi egingo dira: jolasak, igerilekuan dzangada, Bilbon zehar bertsopista jolasa, bertsolari ezagunen bisita eta saioa, Oskar Estangarekin udalekuko kantuaren grabaketa eta kantaldia...



XABIER SUKIA
2013-03-22, Añorga

Gaia: "Egunero bezala etxera iritsi zarenean zerbait aldatu dela sumatu duzu."

Doinua: Neska zaharrak eta apaizak I

Etxera nator ttipi ta ttapa iluntzeko argi printzan eta gau freskoan brisan etxe ondoan kubo marroi bat nik espero nuen gisan. (bis) Aldaketa bat gertatuko da beraz ja gure bizitzan igual hala komeni zan zeozer aldatu egin da baina ez dakit zertan gabiltzan asko esaten ari zeraten bezain txarra ez da izan. (bis)

Aldaketa bat estetiko ta aldaketa bat guban kubo marroiaren gudan. Beraz aldatu behar sailkatu zaborra neguan, udan... (bis) Aldaketakin batzuk haserre ta beste batzuk liluran bagoaz abiaduran jendea kontra soma dezaket fede txarrez eta dudan birziklatzeko premia duen zenbat ikusten ditudan. (bis)

Euskal Herria aldatuko da lehen aldatu zen Europa herriai hau diot opa etorkizuna ona izango da gero txin-txin eta topa. (bis) Astelehenean, asteartean erabaki da zer bota ez doa inoren kontra baina ez dakit zergatik dagon hainbeste arrazoi mota ate bat dagon tokian beti irtenbide bat dago-ta. (bis)

Irailaren 29an abiatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013

Lau urteko zikloa beteta, Bertsolari Txapelketa Nagusiaren 16. edizioa irailaren 29an hasiko da Villabonan eta abenduaren 15ean amaituko da, BECen jokatu den finalarekin. Azken edizioan bezala, 14 saio izango ditu aurtengo Txapelketa Nagusiak.

Azken bi urteotan egin diren herrialdetako txapelketetan eskuratu dute bertsolariek Txapelketa Nagusian parte hartzeko aukera. Horiez gain, orain lau urteko finalistek zuzenean lortua zuten txartela.

Bertsozale Elkarteak orain dela urtebete hasi zen Bertsolari Txapelketa Nagusia diseinatzen eta prestaketa lanetan. Irailaren 17an egingo da aurkezpen ofiziala eta bertan txapelketaren gaineko xehetasun guztiak emango dira. Irailaren 26an, berriz, Txapelketa Nagusiaren aurkezpen festa egingo da.

43 partehartzaileak:

Agin Rezola	Iñaki Zelaia
Ainhoa Agirreazaldeg	Iratxe Ibarra
Aitor Mendiluze	Jexux Mari Irazu
Aitor Sarriegi	Jokin Uranga
Alaia Martin	Jon Maia
Amaia Agirre	Jon Martin
Amets Arzallus	Jone Uria
Arkaitz Estiballes	Julio Soto
Beñat Gaztelumendi	Maddi Sarasua
Beñat Lizaso	Maialen Lujanbio
Beñat Ugartetxea	Manex Agirre
Eneko Fernandez	Miren Amuriza
Eneritz Zabaleta	Nerea Elustondo
Erika Lagoma	Odei Barroso
Etxahun Lekue	Oihana Bartra
Felix Zubia	Oihane Perea
Fredi Paia	Onintza Enbeita
Iban Urdangarin	Sustrai Colina
Igor Elortza	Unai Iturriaga
Iker Zubeldia	Unai Agirre
Iñigo Mantzidor "Mantxi"	Xabier Silveira
Iñaki Apalategi	



Txapelketa Nagusia.//Alberto Elozegi

Virginia imazekin klown ikastaroa egingo da ekainaren 28tik 30era

Azken bi urteotan bezala, Oihulari Klown taldeko Virginia Imaz eta Karmelo Muñozekin "Inprobisazioa eta umorea eskenategian" tailerra egingo dugu, Bergarako Aibar baserrian. Aurreko edizioek izandako arrakastaren ondoren, ekainaren 28tik 30era bitartekoa izango da aurtengo egonaldia.

Tailerra bertsolaritzako fauna osoari zuzendutakoa da: bertsolari, gai-jartzaile, irakasle/begirale, antolatzaile, zale... Denera 14 gizon-emakumek hartuko dute parte aurtengo edizioan.

Umorea egiterakoan eta oholtzara igotzeko prestaketan, genero perspektiba hartzen dute kontutan, oinarritik. Genero ikuspegia eta sorkuntza uztartzen dituzte, beraz. Norberaren "ni" benetako hori (norberaren "ni" onena) topatzeko tailerra da, beti umorea oinarri dela.

Ekainaren 22an jokatu da Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa

Aurtengoa 25. edizioa izango du Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketak. Ekainaren 22an jokatu da finala, Orion. Bertan elkartuko dira Iparraldeko, Arabako, Nafarroako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketatik sailkatutako bertsolari gazteak. Bi kategoriatan banatuta kantatuko dute: 14 urtera artekoek lehenik eta 15 eta 18 urte bitartekoek ondoren. Nafarroan maiatzaren erdialdean egin ziren gaztetxoek eta gazteen finalak. Bizkaian maiatzaren 29an egingo da finala. Gipuzkoan, berriz, maiatzaren 31n izango da hitzordua. Araban ekainaren 1ean egingo da finala. Iparraldean ere egun horretan kantatuko dute 15 eta 18 urte bitarteko bertsolariek.

Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalean, gaztetxoek mailan, taldeka jokatu da finala lehenengo aldiz. Maila honetan ez da lehiarik egin Araban eta Iparraldean, eta finalean kantatzeko gogoia daukaten bertsolari gazteen artean osatuko dute taldea. Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan finaletik sailkatuko dira Orion kantatuko duten taldeak.

15 eta 18 urte bitartekoek mailan ere aldaketak izango dira aurtengoan, finalean ez baita galbahirik pasako. Horrez gain, bakarkako kartzelako ariketarik ez dute egingo bertsolariek. Horren ordeztatik berri bat jarriko zaie.

Eskolarteko Bertsolari Txapelketa Ikastolen Elkartek eta Bertsozale Elkartek antolatzen dugu. 2014ko edizioari begira

Eskolarteko berri baten sorrera ari gara lantzen bi elkarteok, bertso-eskolen ekarpenekin osatzen ari dena. 2013ko edizio honetan lehen aldaketa txiki batzuk antzemango dira, Eskolarteko berri horren norabiderantz pausoa ematea adierazten dutenak.



Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa.//XDZ

Lankuk 10 urte beteko ditu ekainean

Datorren ekainaren 3an LANKUK 10 urte beteko ditu zuei guztioi esker. Ospakizunerako abagune ederra da zalantzarik gabe eta udazkenean izango da horretarako parada. Aurrera begira ere, guztion parte-hartzearekin ziur gaude LANKUK ibilbide oparoa egingo duela eta ilusioz bete.

Lanku10

Uztailaren 3tik 5era egingo dira

Ahoa Bete Hots jardunaldiak

Aurtengoan laugarrenez antolatuko ditugu "Ahoa Bete Hots" jardunaldiak. Uztailaren 3tik 5era bitartean egingo dira Villabonako Subijana Etxean. Aurkezpen ofiziala ekainean egingo badugu ere, ahozkoatasunarekin interesa daukan edonori zuzendutako jardunaldiak izango dira aurtengoak ere. Ahozko generoetan lanean ari garen elkarte eta eragileok elkarlanean antolatutako jardunaldiak dira.

Lehenengo edizioan ahozkoatasuna hezkuntzan, literaturan, hedabideetan eta euskal kulturaren barruan aztertu genuen. Bigarrenian idatziaren eta ahozkoaren arteko harremana izan zen ardatz. Iaz, berriz, euskalkiak, euskara batua eta erregistroak izan ziren aztergai. Lehen bi edizioetako hitzaldiak biltzen dituzten liburuak argitaratuta daude gainera.



Puntua jarrita

TXOMIN GARMENDIA

Bertsolaritzak baldintza asko ditu berekin, baiña nagusiena "rima" dala esango nuke nik; izan ere, rimatu gabe ez bai dago bertsoarik. Gaur gai oni elduko diot borondaterik onenez.

Basarri zanak (G.B.) esaten zun mugaz onuzko bertsolariak neurri estuegiak ibiltzen genitula "rima" kontuan; Iparraldekoak askoz lasaiago ibiltzen zirala ekintza orretan, guk baiño gauz gehiago esaten zutela bertsoan. Gure ontan ain "rima" estuak ibiltzeagatik ezer gutxi esanez genbilkgiula bertsolaritza. Adibiderako Elizanbururen bertso ezagun bat jartzen zun, bere rimak onela ziralarik: goizean, danean, gaiñean, artean, aldean, atean eta pakean. Mugaz onuzko izen puska bateko bertsolariak bertso batean erabiliko ez litzukeen rimak noski.

Gauz aundiak eta asko esateko ez dago rimatu bearrik, ez litzake bertsoa izango ordea; egitazko bertsozalea zenbat eta alkarren antzeko "rima" ohea izan, orduan eta gehiago gozatuko da. Adibidez, "arintzen" eta "agintzen" entzuten baditu artuko du belarritako gozamina eta ez hainbeste "arintzen" eta "kantatzen" entzuten dituanean.

Gure aldeko bertso zarretan "rima" naiko aberatsa dabil izen puska bateko bertsolarietan; ala ere, zenbait bertso ondu litzekela esango nuke nik; adibidez, Txirritak: Gañera berriz esposatzean/ Debalde napar zezenak,/Kostako zaizkit galanki baño/Aundiak eta gizenak,/ Aiek iltzeko bi kastillano/Indar aundiko gizonak,/Matxakito ta Bonbita ditut/ etorritzeko esanak"

Nik bertso ori gehiago onduko nuke, naiz ondo rimatua dagon, azkeneko bi puntuak aldatuta: "Aiek iltzeko bi kastillano/ Toreatzaille zuzenak,/Matxakito ta Bonbita dira/Daramazkiten izenak."

Irakurle, bear bada etzera nire iritziko; nik nerean esan det. Puntu au jarri zidan Etxeberririk: "Ire erantzun on bat nai nitek/ Txomin aspaldiko partez". Ona nere segida:

On ori beti zailla dek baiño Saiatuko nauk aldartez, Zenbaitek duan talenturikan Ez edukiarren artez, Asealdi bat artuta gaudek Euskaldunaren gizartez; Orain onena atsudentzea Zardadearen bitartez.

Orain puntua Anjel Mari Peñagarikanori: "Onuzkerori ari dek/semear azitzen".

Koplak

Maiatzaren 31n bukatuko da Hitzetik Hortzeraren denboraldia

Udazkenetik hasi eta udaberrira bitarte Hitzetik Hortzera bertso-programa ikusgai izan da ETB1ean. Jon Artano aurkezleak Felix Irazustabarrena eta Eneritz Urkola erredaktoreak eta Luis Gurrutxaga eta Haritz Arrizabalaga kamerak izan ditu aldamenean ikasturte honetan. Maiatzaren 31n bukatuko da aurtengo denboraldia saio berezi batekin.

Poto-Finixa



Pirata txikiak lizar aldera begira

Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna/XDZ

Bertso-pilota ikuskizuna aurkeztu du Lankuk

Euskal kulturaren bi adierazpen historiko zein gaur-gaurkoak elkartzen dituen ikuskizuna da hau, esatari eta musikak lagunduta herri eta auzotarrek parte hartzeko asmoz jaio dena. Ekainaren 15ean Ereñotzun, ekainaren 21ean Donostiako Antigua auzoan eta uztailaren 25ean Zubietan egingo dira lehenengo saioak. Lankuren bidez mugituko da emanaldia herriz herri.



JASOTA BEZALA
Bertso antologiako bilduma



ESKURATZEKO:
www.lanku.com (etxean jasoko duzu)